



HGB Ausarta Barakaldo ESTk, partidu zaila zeukan aste honetan: liderra zen Celta Zorka. Honi gehitu behar diogu, garaipenik gabe heldu dela partidu honetara. Baina barakaldarrak dena ematera atera dira pistara eta lehenengo momentutik borrokatu dute etsi gabe. Celta Zorka aurretik joan da partidu osoan zehar baina barakaldarrek eutsi dute. Galiziarrek abantaila garrantzitsuak lortu duten bakoitzean, etxekoek ez dituzte besoa jaitsi eta bizirik heldu dira azken minutuetara.

Gauzak horrela azken segundoan Vilma Kesänen-ek garaipenaren saskia lortu du, Marta Perezen kontraeraso baten ondoren (53-51). HGB Ausarta Barakaldo EST-k Madrilen jokatuko du hurrengo partidua, Pozueloren aurka. Garrantzitsua izango da garaipena Barakaldora ekartzea, Pozuelo aurkari zuzena baita kategoria mantentzeko.

Beste alde batetik Euskal Herriko gainontzeko taldeei dagokienez, lehenengo multzo honetan emaitzak onak izan dira. Ibaizabalek garaipena eskuratu du Laboratorios Vnsadiet Leganes-en aurka 76-66 eta liderra da, partidu guztiak irabazi eta Celta Zorkaren porrotaren ondoren. Gipuzkoa aldean Añares Rioja ISB-k (Iraurgi) partidua irabazi du modu garbi batean Pozueloren aurka (93-58). Beste multzoan berriak ez dira onak; Osés Construcción Ardoi-k Granadan galdu baitu Grupo Hafesa Raca Granada taldearen aurka (57-49).